

DESTINOAK ESLEITZEKO FASEA: LANPOSTUAZ JABETZEKO INFORMAZIOA EPE 2016-17

1.- Destinoa lortu dutenek **hilabete** daukate lanpostuaz jabetzeko, langile estatutario finkoa izateko izendapena jasotzen duen Ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreikusitako epe horretan esleitutako destinoaz ezin badira jabetu, harremanetan jarri beharko dira behealdeko telefono horretara deituz; horrela, hala badagokio, lanpostuaz jabetzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango dute.

2.- Lanpostua jabetzan **Osakidetzako Erakunde Zentraleko egoitzan** hartuko da (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), 9:00 eta 13:30 bitartean. Aldez aurretik, **hitzordua eskatu** beharko da 945006338 / 945006150 telefonora deituz.

3.- Lanpostuaz jabetzeko epean esleipenduna Osakidetzan ari bada lanean, bere zentroko Pertsonaleko Zuzendaritzan jakinarazi beharko du **lanpostua utziko** duela, jabetzerako aurreikusitako egunaren aurretik, aurrerapen nahikoaz, zentro horrekin duen zerbitzu-harremana amaituko bada.

4.- Esleitutako destinoaz jabetzeko, interesdunak **dokumentazio hau** eraman beharko du Osakidetzako Erakunde Zentraleko egoitzara:

- *NAN, pasaporte edo gidabaimena.*
- *OTI edo Gizarte Segurantzako kartilla.*
- *Mediku-azterketaren ziurtagiria, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuakemana.*
- *Zinpeko deklarazioa edo promesa, inolako administrazio publikoko zerbitzutik baztertuta ez dagoela eta. Dokumentu hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak eskainiko du.*
- *Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikokoetan hala eskatzen denean.*

5.- Araudian jasotzen diren arrazoi bat dela-eta esleipenduna ez balitz esleitutako destinoan hasiko (eszedentzia bateraezintasunagatik, familia-eszedentzia, amatasun-baja...), lanpostuaz jabetzeko unean horren berri eman eta egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko luke.

6.- Lanpostuaz jabetzen diren esleipendunak, dagokien zerbitzu-erakunde hasi beharko dira lanean lanpostuaz jabetu eta hurrengo egunean.